

Herrera



1946an jartri zen Herrerako ikastetxearen lehen harria.

Ikastetxearen zilarrezko ezteiak

Herrerako ikastetxe publikoak 50 urte bete ditu aurten. Urtemugaren ildotik, ikastetxea eta Altzako Historia Mintegia elkarlanean ari dira ikastetxearen sorrera eta bilakaera ezagutarazteko.

Ederrena bideko ikastetxearen eraikitze lanak 1946an hasi ziren eta klaseak, aldiz, 1952an. Ikastetxearen lehen izena Romualdo de Toledo izan zen. De Toledo, meteorologoa eta karlista, ministro izendatu zuten frankismoaren lehen urteetan. Herrerakoak ezezik, Hego Euskal Herriko eta Espainiako beste hainbat herri eta hiritako eskolek ere izen bera hartu zuten.

Garaiko testuinguruari dagokionez, Altzako Historia Minte-

giko lagunek adierazi diguteenez, "Herrera, 50eko hamarkada hasieran, Pasaiako kaiarekin oso lotuta zegoen. Bertako zenbait enpresek zura eta burdina lanzen zituzten eta makina bat langile bizi ziren auzoan". Mintegiko kideen esane-

**Hasieran,
Romualdo de
Toledo
izena zuen**

tan, "garai hartan Herreran bi ikastetxe zeuden. Familia dirudunek La Sallera eramaten zituzten seme-alabak. Langile familien haurrak, aldiz Romualdo de Toledo ikastetxe berrira jotzen ziren".

Ikastetxeak eta Altzako Historia Mintegiak egindako ikerketen arabera, Romualdo de Toledo nesken ikastetxea izan zen hasieran. Mutilek aurrerago ekin zioten ikastetxeari eskola honetan. Azkenik, 1972-73. ikasturteko agerietan neskek eta mutilak klase berean agertzen dira lehen aldiz. Izena aldatzeko garaia ere iritsi zen eta 1980an izena aldatzeaz gain, ikastetxea publiko bihurtu zen. Orduz geroztik, Herrerako ikastetxe publikoa da auzotar guztientzat.

Ekitaldiak

Urtemugaren haritik zen-

**Herrerakoa
nesken
ikastetxea zen
hasieran**


bait ekitaldi prestatzen ari dira. Ikastetxekoak aldizkari bat argitaratzeaz dira eta bestalde, eskolaren bilakaera jasotzen duen argazki erakusketa zabalduko dute Larratxoko kultur etxean. Datozen egunotan, bestalde, bi hitzaldi izango ditugu ikastetxean bertan. Martxoaren 7an, osteguna, Altzako Historia Mintegiko kideek Herrerako iragana, oraina eta etorkizuna izango dituzte hizpide. Hilaren 21ean, berriz, haurtzarotik nerabezarora igarotzeak ekarri ohi dituen arazoari buruzko solasaldia egingo da.



Urteurrenaren haritik hainbat ekitaldi egingo dira.



Arriberrí, 7 ALZA (Donostia) Kasaren Kultur Etxean eta Altxo Polikirolegiaren ondoan
eta autobusez bazatoz, hobe! Autobus lineak 13, H6, 24 eta 27



Kolon Pasealekua, 27 (Gros) DONOSTIA